

ESKOLAKO JANTOKIAREN AZTERKETA



Eskolako jantokiak ematen duten zerbitzuari geroz eta arreta gehiago jartzen zaio. Dagoeneko ez gara produktuen kalitate onarekin konformatzen, elikadura osasuntsua eta orekatua eskaintzea ezinbesteko baldintza bihurtu da. Sukaldari propioak, begirale tituludunak, dietistak... jantokietan lanean ari direnen espezializazioa ematen ari den honetan, oraingo ariketan zuen eskolako jantokia aztertzea proposatzen dizuegu. Azterketa bost esparrutan banatu dugu. Puntuatu itzazu 0tik 10era zure eskolako jantokian eskaintzen dituzten zerbitzuak.

1.- Dieta orekatua

Adituen arabera, dieta orekatu batean lekaleak, barazkiak eta frutak berebiziko garrantzia daukate. Zure eskolako jantokiko dieta orekatua dela uste al duzu?

2.- Sasoian sasoikoa

Sasoian sasoiko produktuak kontsumitzea komenigarriagoa dela esaten dute han eta hemen. Eta herrian ekoizitakoak badira, askoz hobe! Zure eskolako jantokian kontuan hartzen dira bi irizpide horiek?

3.- Bazkaltzeko arauak

Jantoki guztietan daude arauak. Zorrotzagoak, eramangarriagoak, egokiagoak... baina arauak beti arau. Zuen jantokian kontuan hartzen dira...

- garbitasun arauak (bazkaltzen hasi aurretik eskuak garbitzea, amaitzean hortzak garbitzea...).
- postura egokian esertzea.
- mahai-tresnak modu egokian erabiltzea.
- elikagaiak behar bezala mastekatzea.
- ahoa beteta izatean ez hitz egitea.

- platerean jarritako guztia bukatzea.

4.- Zarata maila

Guztiok atsegin dugu bazkalorduan alboan dugun lagunarekin solasaldian aritzea, baina jantokian bakarrik ez gaudela ohartu behar gara. Aulkiekin, mahai-tresneriarekin, eta abarrekin gauza bera gertatzen da. Tentuz ibili behar dugu, gainontzean zarata handia sor baitezakegu. Zein da zuen eskolako zarata maila?

5.- Hondakinen kudeaketa

Jantokietan sortzen den hondakin kopurua handia izaten da. Organikoa, kartoizko kaxak, ontziak, bilgarriak... Gaikako bilketa egiten al duzue zuen jantokian?

Nolako nota eman diozue zuen eskolako jantokiari? Nota horren araberakoa izango da jarraian egin beharko duzuen lana. Zenbat eta altuagoa izan, jantokiko funtzionamendua hobetzeko behar gutxiago izango duzue. Egoera bestelakoa bada, ordea, jantokiko funtzionamendua hobetuko duten proposamenak lantzen hasi beharko duzue. Amaitzean, arduradunengana jo eta proposamenak aurkeztu.

Eta eskolan egin duzuen bezala, zergatik ez duzue gauza bera proposatzen etxeko ohiturak hobetzeko? Familia elkartu eta lan-metodologia aurkeztu.